



Atal honetan bezeroari eskainiko dioguna definitu beharko dugu, alegia, zein arazo konpondu edo beharrian aseko diogun.

Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Gaur egungo kliniketan, garrantzi handia ematen zaio hura kudeatzeari eta administratzeari. Gure enpresak klinika osoa kontrolatuko duen programa adimendun bat sortu du, lan guztia dinamizatzeko eta sistema digital osoa batean kondentsatzeko asmoarekin. Oinarrizko arazoak estaltzen ditu, hala nola datuen kudeaketa, dokumentu klinikoen osaketa eta hitzorduen kontrola. Argia ere erregulatzen du, ateak kontrolatzen ditu eta ibilgetua desinfektatzen du. Laburbilduz, hortz-klinika batean lan egiteko modua aldatzen du eta langilearen lana arintzen du.



Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Lehen aipatu dugun bezala, Dent.ia-k erraztu eta arindu egiten du klinikaren barruko lan guztia. Gure produktua kualitatiboki nabarmentzen da; produktu berritzailea da, erabilgarria, laguntza ematen duena, pertsonalizagarria, lana errazten du, estatusa ematen diena dituen klinikari, klinikaren barruan arriskua murrizten duena eta diseinu moderno eta minimalista duena, edozein giro klinikotan mimetizatzeko ahalmena duena.